

**2024KO APIRILAREN 24KO KONTROLERAKO  
BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA  
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE  
CONTROL DE FECHA 24 DE ABRIL DE 2024  
(TRADUCCIÓN)**



## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau “Erandio eta Barakaldo udalerriak lotuko dituan All Iron zubi mugikorra egiteko martxan dagozan lanak.”	4
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	4
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea .....	6
- Bizkaiko Talde Popularreko González Diez-Andino batzarkide andreak hartu dau berbea .....	10
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea .....	11
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau .. “Inklusibotasuna sustatzea aldagela inklusiboen bitartez.”	12
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	13
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea .....	14
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	16
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea .....	17
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau “UEFA Women's Champions Leagueren finalean gure hizkuntza, kultura eta nortasuna bultzatzeko eta errespetatzeko neurriak.”	19
- EH Bildu taldeko Goñi Lacar batzarkide andreak hartu dau berbea	19
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Arrizabalaga Arruza andreak hartu dau berbea .....	22
- EH Bildu taldeko Goñi Lacar batzarkide andreak hartu dau berbea	23



- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Arrizabalaga Arruza andreak hartu dau berbea ..... 25
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau 26  
 “Foru Enpresa-Erakunde Publikoen plazak eta lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuak.”
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea 28
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Izagirre Loroño jaunak hartu dau berbea ..... 30
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea 31
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Izagirre Loroño jaunak hartu dau berbea ..... 32
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau 33  
 “Itsasadarraren azpiko tunelak auzokoen komunitateetan izango dauen eragina.”
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea ..... 33
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea ..... 33
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea ..... 34
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea ..... 35
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau. 36  
 “Abantoko Las Karreraseko BI-734 errepidearen saihesbidea.”
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 36
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea ..... 37
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 38
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Alzaga Sagastasola jaunak hartu dau berbea ..... 39
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau 39  
 “Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena memoria historikoa berreskuratu eta transmititzeko.”
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea 40



- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Arrizabalaga Arruza andreak hartu dau berbea .....	40
- EH Bildu taldeko Ilerdia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Arrizabalaga Arruza andreak hartu dau berbea .....	42
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau	42
“Construcciones electromecánicas Consonni, SA enpresaren egoera.”	
- EH Bildu taldeko Llano Lana batzarkide jaunak hartu dau berbea..	43
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea .....	43
- EH Bildu taldeko Llano Lana batzarkide jaunak hartu dau berbea..	44
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea .....	45
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau	45
“Gaueko garraioa.”	
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	45
- Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatu Pérez Ezquerria jaunak hartu dau berbea .....	46
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	47
- Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatu Pérez Ezquerria jaunak hartu dau berbea .....	47
- Batzarra amaitu da.....	48



2024ko apirilaren 24ko batzarra goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 24 de abril de 2024 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señora diputada general, diputados y diputadas, estimados/as junteros/as, miembros de los medios de comunicación y a las personas que se encuentran con nosotros/as en la tribuna de invitados/as, así como a todos/as que van a seguir esta Sesión Plenaria de Control mediante *streaming*. Buenos días, y muchas gracias por seguir este día a día del Parlamento de Bizkaia y por seguir la labor que realiza.

Mis compañeros/as me han avisado de que no se escucha nada, por lo que procuraré hablar un poquito más alto. Señora secretaria, punto uno del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak: Sí, buenos días.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.12/E/2024/0000722](#))

**Autor:** González Diez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Asunto:** Las obras en marcha del futuro puente móvil denominado All Iron que unirá los municipios de Erandio y Barakaldo.

**Documento Principal:**  
([R.E.12/E/2024/0000722](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (23A)

**Expediente:** ([12/B/18/0000964](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([12/E/2024/0000722SE](#))

**Egilea:** González Diez-Andino, Raquel (GPV/BTP)

**Gaia:** Erandio eta Barakaldo udalerriak lotuko dituan All Iron zubi mugikorra egiteko martxan dagozan lanak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2024/0000722SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (23A)

**Espedientea:** ([12/B/18/0000964](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora González Diez-Andino, portavoz del grupo Partido Popular Vizcaíno, tiene la palabra. Grupo Popular Vizcaíno, ahora lo he dicho correctamente. Tiene la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Egun on danoi. Eskerrik asko, mahaiburu andrea.

Martiaren 11n, Erandio parean itsasadarrak ganezka egin ebanez, kalte material asko-asko itxi dabezan uiola handi-handiak jazo ziran. Ganera, eragin larri-larria be



euki dabe auzokide batzuen osasunean, itolarria, egonezina, artegatasuna, estresa... daukiez-eta. Hain zuzen be, oro har, itsasadarrak ganezka egiten dau gune horretan, baina ez dau kalterik sorrarazoten, aldez aurretik atonduta dagozan era bateko eta besteko mekanismoak jartzen diralako abian. Hori holan bada be, martiaren 11 horretan, itsasadarra 5,21eko kotara heldu zan, eta, oso indar handiz ganezka egin ebanez, udalerriko erdialderaino heldu zan. Hori dala eta, kale batzuetan sorrarazi ebazan kalteak, eta baziran 60 urte baino gehiago ura horraino heltzen ez zala.

Zezeilaren 12an, Erandiorako egun baltz hori baino hilebete lehenago, itsasadarra barriro hazi zan, eta, orduan, 5,19raino heldu zan. Martiko ganezkaldiaren antzekoa izan zan, baina, orduan, ura ez zan ohiko gunetik harago heldu, eta ez zan kalte materialik egon. Kasu bietan, data batetik bestera kotea antzekoa izan danez, alde bakarra dago, hau da, Aldundi hau gune horretan egiten dabilan zubiko obren aurrerakuntzea. Erandioko udal-arkitektoaren txostenaren arabera, obra horreek eragin kaltegarria daukie, eta, horren ondorioz, uiola bera tamainu eta larritasun handiagokoa da.

Hori guztia batzordean jorratu zan atzo, bai, baina gaur barriro dinot hemen, jorratu bazan be, ez zalako ezelan be argitu. Izan be, auzokoek zubiko obra hori uiolen larritasunean inplikauta dagoala barruntetan dabenez, mobilizazioak egiten hasi dira, azalpenak eskatzeko asmotan. Hori dala eta, taldeakaz jarri dira hartu-emonetan, eta erantzunbeharrak eskatu dabez, ulertzeko modukoa dan lez. Holan, bada, apirilaren 19an, Arrizabalaga andreak, Aldundiko ordezkariak, adierazpen eztabaidatuezinak egin ebazan, eta, bere esanetan, foru-instituzinoko txosten teknikoaren arabera, honako hauxe erabagi da, eta kakotxak edegiko dodaz: *“ez dago ezelako kausa-ondorio loturarik obrearen eta uiolen artean”*. Kakotxak zarratu dodaz. Aitatu egin beharra dago auzokoek behin baino gehiagotan eskatu deusiela instituzinoari Arrizabalaga andreak oinarritzat hartutako foru-instituzinoko txosten tekniko hori. Halanda be, zain dagoz oraindokarren. Guk geuk be eskatu dogu, baina euki ez daukagu.

Bestetik, atzo, beste diputadu baten agerraldian, eta Izagirre jauna daukat berbabide, berbera adierazoten da. Izan be, Aldundia edozein erantzunbeharretatik errubakotu eban erabat. Barriro be, danok itxaroten dogun txosten tekniko hori aitatu eban, eta, bide batez, beste txosten bat be euki eban oinarri, klima-aldaketeari, marea astronomikoei, marea atmosferikoei eta arlo horretan adituak ez garanontzat ezin teknikogoak ziran ganerako datuei buruzkoa, alegia. Bertan, mareen euren inguruko ondorioak ateraten dira, baina ez da argitzen obrek ganezkaldi horreetan, uiola horreetan eta jasandako kalteetan eragina daukien ala ez. Edozelan be, nahikoa izan zan, Izagirre diputaduak, ezeren ganetik, Aldundia bera errubakotzeko. Dana dala, Izagirre jaunak beste txosten bat be aitatu eban, hau da, jazotakoa argitzeko asmotan Aldundiak hirugarren aditu teknikoek eskatutakoa, alegia. Esan egin eban... Txosten hori, barriz, ez dago amaituta. Era berean, esan egin eban... Halanda ze, inork ez daki ezer txosten horri buruz, Aldundiak berak be ez.

Halanda ze, orain arte, diputadu bik irme-irme baiezten dabe Aldundi hau egiten dabilan zubiko obreak ez daukana ezelako zerikusirik uiolakaz. Hori guztia adierazo dabe hori argitu gurean zuok eskatu dozuen txosten beraren ondorioak ikusi baino lehen. Oraindokarren ez dakizue erabateko ziurtasunez zer jazo dan, baina, badaezpadan, ganetik kendu dozue errua. Oraingo, birritan, ganera. Beharbada, minutu batzuetan, baleiteke hirugarren diputaduak tribuna honetara urtetea eta barriro be ukatzea Erandioko auzokideek jasandako uiolareen ondorioz sortutako kalte handi-handien inguruko erantzunbeharra. Ostantzean, beharbada, eta holantxe izango al da, baleiteke hau guztia argitzea eta abian dagoan txosten horren ondorioak aurreratzea eta zer jazo dan argitzea.

Helburua Aldundia inplikauta dagoala esatea bada, ondo. Erantzunbeharrak hartu behar doguz geure gain eta proiektua aldatu, etorkizuneko igoerek auzokoakan eraginik eukiko ez dabena ziurtatzeko, orain arte ohikoa zan lez. Izan be, barriro dinot, ez zan holakorik jazoten harik eta zubiko obrea egiten hasi arte. Tira, ba, kasuan kasukoa aldatu eta obreari



jarraipena emon besterik ez dago. Ostantzean, txosten horrek kasu isolatua izan dala badino, hain zuzen be, aurreikusterik ez egoala eta obrea zati erantsia ez dala badino, ederto. Argitu egingo da. Egin beharrekoa egin beharko da, kaltetuei Aseguruen Partzuegoak estaltzen ez dauan zatian kalte-ordainak ordaintzeko, eta obreak emongo jako jarraipena.

Edozelan be, ikutu leitekean zeozer egon behar da, argia, fidagarria eta dandanei, auzokoei eurei, batez be, zer jazo zan, zergaitik jazo dan eta barriro jazoko dan azaltzen deusiena. Atzo, batzordean esan nebenez, eta gaur barriro dinot garrantzitsua dalako, segurtasuna zein nasaitasuna emon behar deuseguz auzokoei. Izan be, ezin doguz iragarpen meteorologikoaren eta mareen igoeren pentzura bizitzen behartu. Nahi-ta uiola-arriskudun gunean bizi, kontrolautako gunean bizi dirala jakin behar dabe. Izan be, zuok eten barik dinozuen lez, hau guztia marea historikoaren ondorioa bada, barriro jazoko ez dala esan gura dau. Zeozer historikotzat jotzen bada, gehienez be historian behin edo birritan jazoten dalako da. Ez urtero. Izan be, urtero jazoten bada, ez da historikoa, eta, historikoa ez bada, espero izatekoa da, eta espero izatekoa bada, aurreikusgarria da. Halanda ze, itsasadarrean, itsasoan edo kostaldean bertan edo inguruan obrak egiten badira eta mareen, itsasgoren, iretargiaren, beroketa globalaren... eraginpean badagoz, atzo esan zeunskuen moduan, hori guztiori hartu beharko da kontuan. Ganera, orain arte kota hori nahikoa bazan, urtez urte aurreikusi behar da igoera, eta kota hori igo beharko da.

Guretzat ezinbestekoa izan behar da zubi hau eta etorkizuneko antzeko obra guztiak seguruak izatea unean uneko auzokoentzat, baita hurrengo belaunaldikoentzat be. Ezin dogu tamainu horretako obrarik egin, oraingoan ia-ia 27.000.000 dirala eta gehikuntza batzuk euki dauzala kontuan hartuta. Zergadunen boltsikoko 27.000.000 euro dira, hain zuzen be. Ziurtatu egin behar dogu zubi hau amaitu egiten dana eta, horren ondorioz, Erandiok arazorik eukiko ez dauana ez orain ez hurrengo hamarkadetan.

Edozelan be, hemen gauza asko azaldu behar dira oraindik. Halanda ze, zure agerraldiaren zain gagoz, Alzaga jauna, betibe, gaur erantzuten deuskuna zu zeu bazara. Holan, dan-dana argitu ahal izango dogu, eta behar besteko neurriak jarri ahal izango doguz abian.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora González Díez-Andino. En el turno de réplica, señor Alzaga Sagastasoia, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **ALZAGA SAGASTASOLOA** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

Oraingoan, aldean aurretik eskatu gura dot parkamena, terminologia teknikoa erabiliko dodalako, itaunean bertan eskatzen zan lez. Horixe bera dauka zientziak, hau da, terminologia teknikoa erabili beharra dago gauza teknikoak azaltzeko eta mareak zergaitik igo eta hasten diran azaltzeko, berbarako. Aldean aurretik eskatzen deusuet parkamena, eta, ezelako argibiderik egin behar bada, prest nago. Zer esanik ez, geroago egingo dot.

Bizkaiko Foru Aldundia oinezko eta txirrindularientzako zubia eregiteko proiektuko obrak egiten dabil Barakaldo eta Erandio artean. Obra horreen bitartez, zubi mobikorra bera ezeze, zubitik bertatik biderantz doazan entregetako jarduketak be eregiko dira bazter bietan, Erandion nahiz Barakaldon. Zubiaren eta alboko bideen arteko iragaitzak daukadaz berbabide, agirikoa danez.



Urtarrilaren 10ean, era materialean hasi ziran obrak, obrako ohiko itxiera egin zanean. Urtarrilaren 15era arte, barriz, ez ziran eserlekuak eta harmailak kentzeko lehenengo jarduketak egin. Urtarrilaren 31n, ostera, zolak desmuntatu ziran (espaloiko lauzak). Nabarmendu egin beharra dago baldosen desmuntaketa hori zentimetrikoa izan zala eta alderdi hori oso garrantzitsua dala ostean emongo dodazan datu teknikoiei begira, itaunean bertan eskatzen dan lez.

Lehen egozan kotak Alacanteko Oaren arabera aitatuko dira beti. Portuko Oaren teknologia be erabilten dan arren, terminologia bateratzeko asmotan, Alacanteko Oarena erabiliko dot, ardura ez badeutsue, erreferentzien ondorioetarako berbera da-eta. Honako honeetxek dira kotak:

Oaren ganetik.

- Espaloiko kotea, baldosak kendu baino lehen: 2,85 metro, Alacanteko

- Espaloiko kotea, baldosak kendu ostean: 2,75 metro.

- Errepideko kotea (oraindokarren ez da jarduketarik egin bertan): 2,66 metro.

- San Inazio kaleko kotea: 2,37 metro.

- Obieta kaleko kotea: 2,30 metro.

Geroago gogoratuko doguzan arren, oso gatxa dalako zenbaki horreek buruan eukitea, agirikoa da espaloiko kotak (baldosakaz eta baldosa barik) errepidea baino gorago dagozala eta, aldi berean, errepideko kotea San Inazio kaleko kotea baino gorago dagoala. Halanda ze, San Inazio kalea eta Obieta kalea ingurune osoko behe-gunea da, alboko kaleak be kontuan hartuta.

Dana dala, orain, mareak eta ur-kotak eukiko doguz berbabide, eta, nire ustetan, oso garrantzitsua da hori azaltzea. Urak marearen ondorioz (hau da, hondoko olatuen edo haizearen eragina kontuan hartu barik) hartzen dauan altuereak osogai batzuk daukaz. Lehenengoa, garrantzizkoena, marea astronomikoko kotea da. Kota hori lurraren, iretargiaren eta ur-masearen arteko alkarreraginagaz dago lotuta, eta erabat aurreikusgarria da urteen joan-etorrian, baita hainbat urte lehenago be. Erakunde ofizial eta pribadu guztietako mareen taulak edonorentzat dagoz eskuragarri, jarduera profesionaletarako edo jolas-jardueretarako erabili behar dauzanean. Berbarako, oso interesgarria da honako arlo honeetako lanak egiteko orduan: kaiak, arrantzea, itsasontzien mobimentua... Egun hareetan, marea bizi-bizien prozesu betebetan gengoan, hau da, itsasgorak altuera handikoak ziran.

Era berean, oso garrantzitsua be bada azpimarratzea marea bera itsasbeheratik itsasgorara doanean itsasadarrak eta ibaiak “bete” egiten dirala (mareen ibilbidearen eraginpeko lekuetan, Bilboren kasuan, San Anton zubiraino, adibide bat jartearren). Horren ondorioz, ikusi egiten da ibaiko edo itsasadarreko ibilguaren ohiko norabidearen kontra “igoten” dala ura, beteteko prozesu horren eraginez. Holan, emoten dau ibaia ibaian behera barik ibaian gora doala, eta mareen eraginez jazoten da hori.

Oso adibide ezaguna bizi izan dogu oraintsu. Orain dala aste batzuk, Gabarrearen eguna eta ordua aukeratzeko orduan, oso-oso kontuan hartu ziran mareak, Gabarrea udaletxera heltzen zanean itsasgorea egotea zalako asmoa errazoi bigaitik. Lehenengo eta behin, nabigazinarako kanalean eta bazterretan, behar besteko sakonerak eukitea, itsasontziek ahalik eta segurtasun-sakonera handiena euki eien. Bigarrenez, itsasgoraranzko ibilbidean zehar, itsasadarreko korrontea itsasadarrean gora joatea (itsasotik Bilborantz), itsasoko aldeko





korrontea itsasontzien nabigazioaren onurarako izan eitean, ibaiko ohiko korrontearen kontrako norabide horretan, alegia.

Agirikoa danez, eragin hori erabat kontrakoa da itsasgorara heldu garanean eta itsasbeherarantz goazanean. Une horretan, uraren zirkulazioa aldatu egiten da, eta barriro doa ohiko norabidean, hau da, ibaian gora joan beharrean (Bilbo), ibaian behera doa (Santurtzi).

Hau da, itsasgoretan, “tapoiaren” efektua sortzen da itsasadarreko uretan, itsasgoren eraginez. Hori dala eta, ura itsasadarrean bertan pilotzen danez, ur-mailea larregi igoten da.

Halanda be, mareen kotak be aldatzen dauzan bigarren faktorea dago. Eragin meteorologikoa. Horrezaz ganera, metereologiaren eraginean bertan be, beste azpifaktore bi dagoz aldi berean. Euretako bat presino atmosferikoaren eragina da. Erraz-erraz azaltzeko, esan geinke presinoak txikiak diranean, marearen koteak gora egiten dauala eta, alderantziz, presinoak handiak diranean, marearen kotak txikiagoak dirala. Martiaren 11n-edo, presinoak 981 eta 1000 Mb artekoak izan ziran, hau da, behe-presinoak izan ziran, eta, horren ondorioz, marearen altuerak handiagoak izan ziran. Hori guztia Monica ekatx gogorraren ondorioz jazo zan. Egunkarrietan bertan be agertu zan albistea, eta Kantauriko erlatxetik hur-hur egon zan egun hareetan.

Bigarren azpifaktorea haizea da. Kantauri itsasoan, iparraldeko eta sartaldeko haizeek ura “sartzen dabe” Bizkaiko golkoan. Erraz ulertzen da atlantikotik datozen haizeak Bizkaiko golkoak sorrarazoten dauan bazterrerantz doazala eta, horren ondorioz, mareak gehiago igoten dirala haizeak lehorrerantz egindako bultzadeagaitik pilotutako ur horren eraginez. Eragin horren ondorioz, aldeak sortu daitezke kostaldeko gune batzuen artean, haizearen abiadurearen eta tokiko norabidearen unean uneko aldean arabera. Ganera, egun horretan, jakin badakigu haize-boladak orduko 70 km-tik gorakoak izango zirana iparralderantz nahiz sartalderantz, lehen aitatu dogun Monica ekatx gogorraren ondorioz.

Halanda ze, bat egiten daben hiru elementu daukaguz, eta, itsasadarraren kasuan, martiaren 11n, bateratu egin ziranez, ezohiko marea-kotak sorrarazo ebezan aurreikusitako kota astronomikoen ganetik.

Bat egin eban beste elementu bat be badago martiaren 11n, hau da, prezipitazioak eta itsasadarra osotzen daben emarietara egindako ekarpena. Horrezaz ganera, beste inguruabar bat egon zan, zezeilaren 11ko mareen aldean, martiaren 11n marea biziek bat egin ebelako behe-presino handiakaz, ipar-sartaldeko haizeagaz eta euriakaz. Dan-dana bateratu zan. Zeozelako ekatx ezin hobea izan zan, inoiz baino hobeto esanda, eta, horren ondorioz, uren mailea ohiz kanpo eta larregi igo zan.

Mareek egun horreetan euki eben benetako kotea zein izan zan zehazteko orduan, gure eretxiak albo batera itxita, benetako datuen historiala dago eskuragarri. Bilboko portuko mareografoen sarean dago oinarrituta, eta notario moduko horreek urak unean-unean lortu dauan kotea zein izan dan ziurtatzen dabe. Tira, ba, Bilboko Portuko Agintaritzeak emondako datuen arabera, egun horretako marearen kota gorenaren altuerak 3,0195 metrokoa izan zan (Alacanteko 0aren ganean). Holan, neurketak zehatzak dirala ikusiko dogu. Orain, barriz, lehen aitatu dodazan kotakaz daukan loturea azalduko dot.

Kota hori (3,0195 metro) espaloiko (2,75 metro), errepedeko (2,66 metro) eta San Inazio kaleko (2,37 metro) elementuetako kotakaz erkatu besterik ez dago, marea muga horreen gan-ganetik egon zala eta, horren ondorioz, kotearen mugak erraz-erraz gainditu ahal izan ebazala ikusteko. Hori dala eta, uiolak jazo ziran inguru horretan.



Halanda ze, All Iron pasabideko obrek EZ DAUKIE EZELAKO eraginik uiola horreetan. Nik neuk gobernuko beste kide batzuek esan dabena berresten dot, orain arte egindako jarduketa urriek ez daukielako zerikusirik egon baegozan urbanizazio-kotak gainditu ebazan mareako uraren altuerakaz.

Arabere gehiago. Obrak betearazo baino lehen, beste hainbat gai teknikoren artean, obrek inguruko uiola-arriskuan euki eikien eragina aztertu da. Proiektuko eranskin batean atxikitako azterlan horretan adierazoten zanez, obreak ez eukan ezelako eraginik uiola-arriskuan. Dana dala, alde zurratik bagenkian ezelako eraginik egongo ez zana, holantxe aztertu zan-eta.

Agiri tekniko hori nahikoa izango ez balitz, proiektua onartu BAINO LEHEN gainditu behar izan zan izapide administratiboa egon zan, hau da, Uraren Euskal Agentziaren (URA) derrigorrezko baimena. Esleitu aurretik, baimen horrek aztertu eta ziurtatu egiten dau obreak EZ DAUKANA ezelako eraginik inguruko uiola-arriskuaren baldintzetan. Baimen hori lortzen danean, berez ziurtatzen da obreak ez daukana ezelako eragin kaltegarririk aitatutako uiola-arriskuaren baldintzetan. Edozelan be, gogoan euki behar dogu URak uiola-arriskuaren inguruan egindako mapek ziurtatu egiten dabela ingurune horrek guztiak uiola-arriskua daukana eta zenbait itzulera-epealdigaz daukana lotunea, hau da, hamarkadetan edo mendeetan behin eta barriro jazo izana.

Froga gehiago eskaintzearen, Eusko Jaurlaritzeak berak adierazo egin dau egun horretako marearen kotea ezohikoa eta historikoa izan zala, zeuk aitatu dozun lez, eta bere itzulera-epealdia 70 urtetik gorakoa zala.

Era berean, Aseguruen Kontentsazinarako Partzuergoak bere azken txostenean be adierazoten dauanez, egun horretako marearen kotak ezohikoak izan ziran, eta onartu egin eban adituek sorrarazotako kalteen balorazioa egitea eta, holan bajagoko, kalte-ordainakaitiko zenbateko ekonomikoak ordaintzea.

Horren guztiorren ondorioz, argi eta garbi baiezen da obrea EZ zana ezelan be izan Erandion jazotako uiolearen errazoa eta mareen musturreko baldintza historikoen ondorioa baino ezin dana izan, Eusko Jaurlaritzeak berak adierazo dauanez.

Bizkaiko Foru Aldundiak ikerlan tekniko hori egin dau obrek uioletan euki daikien eragina zehazteko, eta emoitzea negatiboa izan da, lehen aitatu dogun lez. Harago joanda, Erandioko Udalagaz lan egiteko eta auzoko kaltetuei laguntzeko asmotan, hartu-emonetan egon da eta batzar teknikoak egin dauz Erandioko Udalagaz beragaz eta Aseguruen Kontentsazinarako Partzuergoagaz, uiolak ikertu ahal izateko. Dana dala, Aseguruen Kontentsazinarako Partzuergoaren kasuan, eskatu egin jako personek eta negozioek jasandako kalteak ordaintzeko, eta, ostean, holan bajagoko (eta holan ez dala ikusi dogu), hirugarrenei (Aldundiari berari be) eskatuko jake partzuergoari berari kontentsazino ekonomiko horreek ordaintzeko.

Egia esan, atzo arratsaldean, zeuk aitatu dozun txosten horri jagokonez, atzo arratsaldean Zaitec ingeniari-taldea-enpresako txostena heldu jatan. Erabateko aintzatespena dauka sektorean, eta, egia esan, Zorrotzurreri buruzko txostena egin barri dau. Lehenengo eta behin, ingurunea eta garatu beharreko teknika ezagutzen dauzalako aukeratu eben. Azken zatia baino ez dot irakurriko, orrialde asko daukazan txostena dalako, hauxe dinoan azken ondorioa, alegia:

*2024ko martiaren 11ko uiolearen ezohiko tamainuak berez sorrarazo ahal izango ebazan San Inazio kalean eragindako kalteak, nahi-ta Alzaga parkeko egoerak bere horretan iraun, BFAk zubi barria eregiteko sustatutako eta gaur egun abian dagozan obrak hasi aurretik be bai.*



Hau da, bertan esaten danez, bardin eutsan obrea abian egotea edo obrarik ez egotea, kotak eta uiolak jazo egingo ziralako. Seguruenik, txosten hau eskuragarri eukiko dozue laster.

Amaitzear nago. Lehen aitaturako agirian, partzuergoak berak berariaz azaltzen dau Bizkaiko Foru Aldundiak ezelako errurik ez daukala kalte horreetan, eta, bertan adierazoten danez, eta oso faktore garrantzitsua da, kaltetutako auzokoakaz eta negozioakaz hartu-emonetan jarten hasiko dira laster, kalteak baloretako eta horregaitiko kasuan kasuko ordainketak egiteko.

Hau da, egonean egon beharrean, Bizkaiko Foru Aldundia oso eragile aktiboa izan da jazoera ikertzeko, auzokoen alde ebazteko, baloretan hasteko eta kaltetuei ordaintzeko orduan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Alzaga Sagastasoloa. En el turno de réplica, señora González Díez-Andino, portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, tiene la palabra.

La Sra. **GONZÁLEZ DIEZ-ANDINO** andreak: Tira, eskerrik asko, Alzaga jauna. Mahaiburu andrea.

Azalpenak emon badozuz be, oraindakarren hainbat eta hainbat itaun geratzen dira aidean, oraindakarren ez dogulako lehenengo txostena ikusi, horren arabera Aldundiak erantzunberririk ez daukana ziurtatzen badozue be. Oraindakarren, ostera, gutako inork be ez dauka bere esku.

Oraindakarren, zure esanetan, kanpokoek egindako bigarren txosten hori be ez dogu ikusi, eta, esan deuskuzunez, horrek be mareak baino ez daukaz berbabide.

Oraindakarren, ganera, marea horreei buruzko txosten teknikoa hartu behar dogu geure gain, itsasoaren mailea igon egingo dala ohartarazoten deuskula kontuan hartuta, gaur eguneko obrea iragarten deuskuen etorkizun horretara eta, era berean, bizi dogun orain horretara be egokitzeke.

Horrezaz ganera, auzokoei be behar besteko azalpenak emon behar jakez, eta nahikoak baizen argigarriak izan behar dira. Aseguruak estaltzen ez dauzan kalte guztiak ordaindu behar jakez, eta, batez be, merezidutako nasaitasuna be emon behar jake, holako uiola gehiago jasango ez dabela esatean. Izan be, behar besteko neurriak hartuko dira, zubiko gaur eguneko obreak barriri be itsasadarraren ganezkaldian eraginik euki ez daian. Holan, proiektuko errakuntzea aldatuko da kotak jastean eta bazterrak biluztean, eta itsasoaren igoerearen inguruan beste txosten batzuetan egiten dan aurreikuspenaren errakuntzea aldatuko da, atzo azaldu zenduen lez eta gaur be zuk zeuk barriri esan dozun lez. Ostantzean, aldaketa biak egingo dira.

Ez da ezer barririk egon atzo batzordean eskainitako informazioaren eta gaur bertan, osoko batzarrean, eskainitakoaren artean. Halanda ze, emoten dau gaia hoztu gura dozuela, inguru-minguru zabilze-eta, inora be heldu barik. Ha-ta guzti be, ez da erraza izango, ez gagozalako ahazteko prest. Ganera, zer esanik ez, auzokoek horixe bera gura dabe, eta, gaur, bertan, euren ordezkariak gara, baina ni neu ezeze, zuok guztiok be bai. Dana dala, lar argitu ez arren, gauza bat edo beste esan dozu, modu teknikoegian, hori bai. Batzuetan, politikarioi leporatzen deuskue ez deusagula jenteari eguneroko hizkuntzan berba egiten eta nekez ulertzen



deuskuela. Askotan, barriz, errazoia daukie, nahi-ta, gura dogunean, argi-argi berba egiten dogun eta oso zuzenak garan. Dana dala, antza danez, hori ez da eguna, ezta, Alzaga jauna?

Edozelan be, ukatuezina da Erandion ohikoa zana itsasadarrak ganezka egitea. Zenbait biderrez jazoten zan urtean, baina ez egoan kalterik. Halanda be, zubi horren obrak hasi baizen laster, ganezkaldia uiola bihurtu da, eta kalte larriak euki dauz auzokoentzat. Horrezaz ganera, Aldundiak ez-ikusiarrena egin dau. Atzo, iretargiari bota geuntsan errua; eta, gaur, mareen eraginari, Gabarreari, haizeari. Egia esan, danok ikusi dogun txostenaren arabera, ostera, eta arkitektoaren txostena daukat berbabide, kasuan kasuko obrea da erruduna, kaia bera biluzik geratu dalako, batez be, eta kotea murriztu egin dalako.

Zure esanetan, bardin eutsan obrea abian egotea ala obrarik ez egotea. Izan be, aurreratu dozunaren arabera, horixe bera dino Zaitecen txosten horrek. Ha-ta guzti be, ez dinoskuzu bardin eutsan ala ez itsasadarreko kaiko urbanizazio hori kenduta egotea, arkitektoak adierazotakoa horixe bera dala kontuan hartuta. Izan be, azkenean, kota hori jatsi danez eta lauza guztiak, lorategiak eta dike moduan erabilitako hormatxuak kendu diranez, uiola aurreikusitakoa baino askoz be larriagoa izan da seguruenik. Ez obrea bera, obrearen proiektua zelan egin dan baino. Hori dala eta, argi eta garbi dago errakuntzea dagoana proiektuan edo faseen garapenean eta, bertan, hori geure gain hartu eta konpondu eta prebenidu egin behar doguna, barriro be holakorik jazo ez daiten. Izan be, baleiteke obrea bera, bere proiektua zelan egin dan kontuan hartuta, erruduna ez izatea, baina faseak zelan garatu diran bai, ostera. Proiektua egin zanean egon baegoan urbanizazio hori kendu danez eta orain ez dagoanez, uiolak oso-oso larriak dira gaur egun, eta orain arte ez zan holakorik jazo.

Horixe bera baino ez da geure gain hartu behar doguna. Horixe bera baino ez da auzokoek eskatzen dabena, hau da, geure erantzunbeharra onartzea eta urtenbidea emotea baino ez dabe gura. Halanda ze, ezin gara oinarritu txosten batean eta beste txosten batean eta beste txosten batean, itsasgorea eta itsasbeherea berbabide bakarrak diranean. Izan be, hemen be badago giza eskurik, ez jainkotiarra bakarrik. Horixe bera da geure gain hartu behar doguna.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora González Díez-Andino. En el turno de réplica, señor Alzaga Sagastasoloa, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **ALZAGA SAGASTASOLOA** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta.

Tira, ba, horixe bera da zientziak daukana, zientzia bera azaldu egin beharra dagoala eta azalpenak emon eta kentzen deutsezala eragin askori, baina, gai honetan, batez be. Hain zuzen be, itsasgorea eta itsasbeherea eta uiolak berbabide euki behar badoguz, zeozergaitik izan beharko da. Uste dot ezin argiago geratu dala zenbait txostenen bidez, baina, batez be, azken unean aitatu dodanaren bidez. Zure esanetan, barria zan. Holantxe da, bai, atzo gauekoa, hain zuzen be. Bertan adierazoten danez, obreak ez eban ezelako eraginik euki uiolan, ez betearazpen-faseak ez ostekoak, obrea betearazotakoan. Argi eta garbi azaltzen da Zaitecen txostenean. Horrezaz ganera, zenbait biderrez aitatu dozu udal-arkitektoaren txostena. Neuk be irakurri dot. Era berean, Erandioko udal-arkitektoaren txostenean be honako hauxe esaten da errazoen diagnostikoan eta azterketan, 4.2. puntuan, hain zuzen be:

*“Aldi berean, ganera, honako jarduketa honek be egin dira, errazoen diagnostikorako fasean aurrera egiteko asmotan”.* a) puntuan, estolderiaren ikuskapena aitutzen da. b) puntuan beste erakunde batzuei txostenak eskatu ahal jakezala azaltzen da; berbarako,



Euskalmet, Bizkaiko Foru Aldundia, Portuko Agintaritzea, URA, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa. Holan, bada, informazinoa arakatu eta euspenaren ustezko errazoiak zein diran aztertuko da. Egia esan, guk geuk eginda daukagu hori. Hori dala eta, udalak aitatu dauzan entidade eta erakunde horreek guztiek emon deuskuezan datuetan oinarrituta, kasuan kasuko txostena egin dogu. Guk geuk eta Zaitec enpresek. Honako hauxe dino, eta berbaz berba irakurriko dot:

“Aurretiazko informazino hori lortu arte, nekez zehaztu ahal izango dogu zein izan diran uiola honeen errazoi zehatzak. Dana dala, esperientzia nabaritasuna danez, uraren kotearen gorengo gunea gaintitzen danean, ura zuzen-zuzenean helduko da gure kaleetara, euren kotea bideko bertako kotea baino beheiago dagoalako. Hori sarritan jazoten da, ganera”. Ondo irakurri dot. “Horren ondorioz, ohikoa da urak ganez egitea mareak biziak diranean. Adibide moduan, bi euki doguz aurton, uiolak dagozanean be bai, 15 urteko epealdian.

Halanda ze, inguru horretako uiola-arriskua handi-handia da, uiola-arriskudun gunean kokatuta dagoalako, hain zuzen be, eta itzulera-epealdia 100ekoa dalako. Zeuk zenbait biderrez aitatu dozun udal-arkitektoaren txostenean esaten da hori. Horrezaz ganera, honako honeetxek be erantsi gura dodaz neuk: geure txostenak, hirugarrenen txostenak, Zaitecen txostenak, Ur Partzuergoak aurkeztu deustana, Euskalmetek emon deuskuna eta Portuko Agintaritzeak aurkeztu deuskuna. Halanda ze, bertatik ateraten dogun zentzuzko ondorio zientifikoaren arabera, obrek ez dabe ezelako eraginik euki Erandion jazotako uioletan. Hori dala eta, uste dot argi baino argiago, ezin argiago dagoala, zientzia ustearen ganetik dagoalako. Ikusten dozuenez, ez dauka, ez dauka ezelako eraginik. Usteak, nonork zeozer ikusi dauala, barruntau dauala uste izateak, ez dauka persona horren uste horretatik baino harago doan esangurarik. Egitate bi aldi berean jazoten diranean, ez dau esan gura bata bestearen sorburua danik. Hori argi-argi geratu behar dala uste dot nik.

Halanda ze, hortik aurrera, udalagaz lan egiten dogu, lehenengo eta behin, sorburuak zein diran zehazteko. Partzuergoagaz lan egiten dogu, eta presinoa egiten dogu, kaltetutako auzokoei eta saltegiei ordaindu deien, ordaindu behar deuten neurrian. Ni neu harago joango naz, ganera, seguruenik udalakaz lan egingo dogulako, nahi-ta gure erantzunbearra izan ez. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiaren eginkizunen artean ez dago errazoiak zein diran aztertzea. Ikusiko dogu zer elementu daukiezan URak edo beste erakunde batzuek. Era berean, beharbada, geure azterketa-elementuren bat be euki daikegu, ez, ostera, betearazpenerako, nork bere administrazino-arloak daukazalako. Aztertu egin beharko da zer jazo dan eta zer egin daitekean, ezer egiterik badago, barriro be uiolarik jazo ez daiten.

Hau da, ez gara ezelan be geldi geratu. Zergaitik ez garan errudunak azaldu dogu, baina egin beharrekoa be egin dogu. Uste dogu zentzuzkoa dala Erandioko auzokoen eta saltegien onurarako jokatzea, eta, horrezaz ganera, etorkizunean azalpenak emoten ahaleginduko gara. Halanda be, badinotsuet luze joko dauala, ezin gatxagoa dalako elementu hori aztertzea. Ados?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Alzaga Sagastasoloa. Punto 2 del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:



**Iniciativa Originaria:** Interpelación

[\(R.E.12/E/2024/0000747\)](#)

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz  
(GM/TB-EB)

**Asunto:** Fomentar la inclusividad a través de la instalación de cambiadores inclusivos.

**Documento Principal:**

[\(R.E.12/E/2024/0000747\)](#)

**Expediente:** [\(12/B/18/0000968\)](#)

**Jatorrizko ekimena:** Itauna

[\(12/E/2024/0000747SE\)](#)

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz  
(GM/TB-EB)

**Gaia:** Inklusibotasuna sustatzea aldagela inklusiboen bitartez

**Dokumentu Nagusia:** [\(12/E/2024/0000747SE\)](#)

**Espedientea:** [\(12/B/18/0000968\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Buenos días. Muchas gracias.

Tira, ba, ondoetorria emon gura deusat Bizkaiko Aldagela Inklusiboak Koordinetako Alkarteko arduradunari. Tira, badakizue, Bizkaiko biztanleen kopurua 1,1 milioi ingurukoa da. Euretatik, zati batek edonora iristeko eta bardintasunezko erabateko bizitza duina eta autonomoa eukiteko aukerak daukaz mugatuta, irisgarritasunik ez daukalako eta ingurunera egokitzerik ez daukalako. Alde horretatik, 2021. urteko urtarrilean, eregitako inguruneke irisgarritasunari buruzko lehenengo arau europarra argitara emon zanez, aurrerapauso handia emongo da inklusiboak diran inguruneak lortzeko orduan. Arau europarrean, oinarritzko eskakizunak eta gomendioak azaltzen dira, ingurunea irisgarria izan daiten, hau da, erraz erabili ahal izatea, danontzako diseinuaren edo diseinu unibersalaren printzipioen arabera. Holako diseinuak bardintasunezko erabilera, erabilera segurua errazten dau era guztietako jentearentzat.

Arau honetan, irisgarritasuna biztanle guztientzat ezinbestekoa dala ulertzea da garrantzitsua, nahi-ta helburu nagusia giza talde zaurgarrienen preminak izan; berbarako, desgaituak edo edadekoak. Edozelan be, garrantzizkoa da nabarmentzea arau honek azaldu egiten daukala irisgarritasuna herritar guztiakan dauakala eragina eta behar besteko tresnea dala eskubide unibersalak bermatzeko.

Proponiduten dauzan gomendioen artean, bainugela-aldagela inklusiboen kontzeptu barria dago. Zehatz-mehatz, bertan adierazoten danez, instalazio horreek eskaini behar dira garraio-gune handietan, ospitaleetan, errepideetako zerbitzuguneetan, merkataritzako zein aisialdiko gune handietan, ikastetxeetan eta naturaguneetan be bai; hondartzetan, berbarako.

Zer da aldagela inklusiboa? Aldagela inklusiboa leku garbi eta segurua da, 12 m<sup>2</sup> inguru daukaz eta beharrezkoak diran gitxieneke elementu batzuk daukaz; esate baterako, garabia, ohatila erregulagarria, komunontzia, konketa erregulagarria, dutxea eta pribadutasuna eukiteko moduko manparea. Horrek guztiak higiean laguntza-premina handiak edo larriak daukiezanen garbitasuna bermatzen dau, laguntza behar dabelako eta, batzuetan, lagun biren laguntzea be behar dabelako. Gaur egun, danok ezagutzen doguzan bainugela irisgarri estandarrek ez daukiez beharrezkoak diran elementu horreek, higiean laguntza-premina handiak edo larriak daukiezanek eta euren jagoleek zein senideek bainugelea erraz, autonomiaz eta, batez be, duintasunez erabilteko aukerea euki daien. Persona horreek ez daukie euren premina personalak estaltzeko leku egokiturik. Hain zuzen be, etxetik kanpo euren



oinarrizko preminak estaltzeko moduko bainugela duin eta segururik ez daukien 5.500 inguru bizkaitar daukaguz berbabide.

Zer esan gura dau horrek? Persona horreek kontrolau egin behar dabela zenbat denpora emoten daben etxetik kanpo. Kontrolau egin behar dabe zer eta zenbat edaten daben, zer eta zenbat jaten daben etxetik urten baino lehen eta kanpoan dagozan bitartean. Batzuek urten egiten daben arren, asko etxean geratzen dira, ez dabelako bainugela bateko zoruan etxuteko esperientzia bizi gura pixoihala, konpresea edo behar dabena aldatu behar dabenean. Umetxuentzako aldagelak dagoz, baina zergaitik ez dago beste persona batzuentzako aldagelarik?

